

Egunon guztioi eta mila esker gure gonbidapena onartzeagatik.

Bigarren urtea da ekimen hau bultzatzen duguna eta pozik esan dezakegu parte-hartzaileak handitzen doazela. Hona hemen aurtengo proposamenak.

Lehen ekimena maiatzaren 25ean, larunbatean, izango da eta bertan **MENDIAN ERE EUSKARAZ** aldarria plazaratuko dugu, indarberrituta.

Lelo horren bidez adierazi nahi dugu **mendia eta euskara uztartu** nahi ditugula, era ludikoan, mendi martxa bat eginez. Ekimen horretan parte hartzen dugun mendi-taldeok euskaraz bizi gara gure ohiko jardunean urtean zehar. Mendiz mendi euskaraz, naturaltasunez bizitzeak batzen gaitu talde guztiok. Beraz, maiatzaren 25a **ez da izango egun isolatua** gure ohiko jardunean, baizik eta mendizale euskaldun eta hiztun ororendako deia gurekin bat egiteko.

Zalantzarik gabe, hemen gaudenok baino talde gehiago dira, modu batean edo bestean, Euskal Herrian zehar mendia euskaraz bizi dutenak eta, hain zuzen, deialdi honen bidez, **gure arteko ezagutza eta harremanak errazteko** eta sendotzeko aukera bat eskaini nahi diogu elkarri. Ziur gaude agerraldi honen ostean, eta komunikabideen oihartzunaren laguntzaz, talde eta norbanako gehiago batuko direla gure egitaspora.

Ezagutzen ditugu hainbat mendi elkarte elebitan aritzen direnak eta gustatuko litzauguke horiek ere parte hartzea maiatzeko irteeran baina ondorengo konpromiso hau guztiz garbi izanda, hau da, **egun horretan euskara hutsean aritzea**, gure eskaintzak eskura jarriko baitie, egun horretan sikiera, mendian ere euskaraz aritzea. Ahaleginak merezi du, ziur gaude.

Mendi irteera PAGOMAKURREko parkingean hasiko da, **GOIZEKO HAMARRETAN**, eta bi aukera izango ditu:

1. Errazena, kontuan hartuta adin txikikoak eta adinean aurrera doazenak, **ARRABAKO ZELAIETARAINO** izango da.
Joan-etorria: 8km, desnibela: 300m.
2. Zailena, Arraban hamaiketakoa egin ostean, **GORBEIARA IGOERA**.
Joan-etorria: 13km, desnibela: 600m.

Ibilbideak aukeratzerakoan kontuan hartzen ditugu ondorengo irizpideak: lau urtetako zikloa, mendi esanguratsuak izatea eta eskurakoak izatea ahalik eta adin tarte zabalenarentzat.

Hauek gara, “MENDIAN ERE EUSKARAZ” ekimenaren bultzatzaileak:

GEUrekin mendira (Gasteizkoa), BLAGAN euskara elkarte (Hondarribiakoa), AÑORGA M.E (Donostiakoa), ETZANDARRI (Lemoizkoa), PLATEROTARRAK (Donostia-Antiguakoa), KRABELIN taldea (Eibarkoa), MENDIAN EUSKARAZ (E.H.koa), MARIMENDI (E.H.koa), MENDIAK ETA HERRIAK (E.H.koa).

Ekimenarekin, oraingoz, bat egin duten Mendi, Kultura eta Euskara elkarteak:

BEGIRALEAK kultur elkarte (Donibane-Lohitzuneko), PRAKTIKATU AEK (E.H.koa), Iruinerriko mendiko mintzakide taldea, ALEGIako mendi asanblada (guraso+umeak), AED topagunea (Arrasate Euskaldun Dezagun)...

Erabakitze arduradunak:

GOIERRIKO beteteranen mendi taldea, INDAMENDI (Zumaiako mendi elkarte), KANTSATZEKE (Elgetako mendi taldea) eta beste.

Talde guztiok batera ortzadar zabala islatzen dugu, bai geografikoki zein beste esparrutan: **Herriz herrikoa, Euskal Herrikoa, emakumeena, gazteena, umeena eta beteteranoena.**

Bultzatzaileon aniztasuna, beraz, nahiko zabala eta aberatsa da ikus dezakezuen.

Harremanetan gaude beste talde batzuekin eta sare sozialen bidez joango gara atxikipenen berri ematen.

Oharrak:

- Edaria eta janaria norberak eraman.
- **Eguraldiaren** arabera jantzia eta osagarriak eraman.
- Ibilbidean **bi aukera** daude, bata erreza, Arrabarainoko zelaietara, eta bestea zailena, Gorbeiaraino. **Bakoitzak aukera** dezala berea, emandako ezaugarri teknikoak kontuan hartuta eta bere prestakuntzaren arabera.
- **Ibilbidea garbia** da, ongi markatua berez, eta inongo arazo teknikorik gabe, dena den, gurekin datozenei bertan momentuan emandako **aholkuak** kontuan hartzea eskatzen diegu, denon hobe beharrez.
- Edozein mendi irteeran bezala, **mendiko aseguru** izatea gomendatzen diegu etorriko direnei.
- **Mendi irteera honen bultzatzaileok ez gara arduratzen, hau guztia kontutan hartuta, gerta daitekeen edozein ezbeharrez.**
- **Eguraldi makurra balego data alda daiteke.**

Bigarren ekimena berria da, eta aurrekoaren osagarri:

Webgune bat sortu dugu **mendiaren inguruan euskaraz ekoizten den material idatzia zein ikus-entzunezkoa jasotzeko eta plaza izateko edonorentzat.**

Ekimen honetan ere harremanetan jartzen ari gara artikulugile eta irudigile euskaldunekin, mendi gune birtuala, euskalduna indartzeko.

Hau da orriaren helbidea: <https://mendienereuskaraz.weebly.com/>

Sei atal ditu:

1. **ATARIKOA:** Hemen prentsan eta aldizkarietan agertzen diren euskarazko informazioa jasotzen dugun. Horrekin batera, hilerro, euskara hutsean, egiten diren mendi irteerak agertzen dira.
2. **MENDIAN ERE EUSKARAZ:** Gure ekimenaren berri ematen du.
3. **BLOGAK:** Mendiko euskarazko blogak daude bertan hiru salietan banatuta: Norbanakoak, naturzaleenak, taldetakoak eta BERRIA egunkariko IBILKARI. Mementuz, 31 blogen erreferentziak ditugu.
4. **ARTIKULUGILEAK:** Guretzat edo besteentzat idatzitako artikulua.
5. **IRUDIAK:** Oso garrantzitsua da gaur egun irudia mendiko ekintzen berri izateko.
6. **HEMEROTEKA:** Bidali dizkiguten artikuluen bilduma.

Espero dugu, gure webgunea, poliki-poliki, erreferente bilakatzea mendizaleon artean eta beste arnagunea eskaintzea mendia eta euskara uztartu nahi duen orori.

Bilbo, 2019ko maiatzaren 10ean.